

## ZURINGORIK GABEKO GORRINGOA

Kafe hutsa, kopa eta txokorra mahai gainean. Xabier Montoiaren liburua ene esku izerditsuen artean. Neguko eguzkiak gihar herdoilduak berotzen ditu, eta biharamuna kaskotik lurruntzen hasi da jada. Ingurumarian bustirik dauden karriketako ihintzak airearekin bat egin du noizbait, baina ni ez naiz ohartu. Plazan txori hordiak baino ez dira ageri; pozik, kantuan dabilta, bart, parrandan likantropoek utzitako soberakinak ari dira edaten.

Alboko tabernako ugazabandreak, menturaz, zigarreta piztu eta ardo beltzeko kopatik edaten duela niri begira jarri da. Niri begira ote? Atzo gaueko anfetek eta alkoholak oraindik zeharo nahasita naukate. Agian, bere begirada galduan eta margotu berri dituen ezpain lodi eta mamitsuen atzean desirazko hitzak daude; hitz gordinak, askatasuna lortu nahian biluzten zaituzten horietarikoak. Nork jakin. Baliteke dagokion mihi zolia hagin zorrozten atzean preso izatea, hauek burdin barrak bailiran. Eta urrea bezain horia den ile matazan ostenduta –beharbada– irudi haragikoiak egon daitezke? Akaso.

Orain bai, ziur nago. Elkarri begiratzen diogu luzaroan, deus ez esan gabe. Dagoeneko isiltasunak biñeta soil batean bahituta gauzka, aiko-maiko, urrunetik hankekin eta gorputz idortuekin jolasten dugun bitartean, komiki pornoa bailitzan. Beste larunbat hutsal bat dela dirudi, urre gorrizko ugazabandrearen tabernaren atarian, ke eta pentsamendu lizunen artean. Alegia, ostiral gauen erruz, ajea martini kopetan apaldu behar izana, gerotxoago etxera joateko kafea hartzen eta igandearen zain egoteko sofán botata, sustraitzen den zuhaitza bezala.

Altxatzera noala, bat-batean Montoiaren liburua jausi zait, eta berarekin batera liburu barruan gordetzen nituen hainbat olerki zelaitik dantzan eta saltoka hasi da. Konturatu orduko enegana hurbildu da “ezpain gorri” –ez baitakit bere benetako izena– diosal eta laguntasun goxo zein mazala eskaintzera. Blokeatuta sentitzen naiz, ez dakit zergatik. Berez hitz arineko pertsona naiz, eta nik dakidala ez naiz erraz lotsatzen. Besotik heldu eta, arren, ez makurtzeko agindu dit, konturatu baita makulu baten laguntzaz mugitzen naizela. Orduantxe, topo egin dute gure bi begiradek. Ez nintzateke ausartuko ene begiradak, instant honetan, zer islatzen duen esatera; baina bere begirada sakona, zintzoa, urduria eta jostalaria da, bederen.

Liburutik erori berri diren paper guztiak batzen lagundu dit, eta irribarretsu paper horiek zer ote diren galdetu dit. Esku artean daukan lehenengo orrialdean begiak jarri ditu dagoeneko. Une batez txiki samar sentitu naiz, erabat lotsatua, katuaren atzaparretatik ihes egin nahian dabilen sagua bezala. Zorionez –edo zoritxarrez– bart hartutako drogen efektua ez da zeharo desagertu; beraz, efektuarekin profitatuta, ene barrunbeetan gelditu zitekeen ausardia pitina berreskuratu dut. Poemak direla aitortu diot, harro, baina asko harrotu gabe, badaezpada. Harriturik, ea zinez nabilen galdetu dit, ez duela inoiz poetarik ezagutu; alegia, desagertzeaz dagoen “espezietzat” hartzen gaituela. Jarraian poemak bueltatu dizkit. Abagunea probestua, ene ibilbidea azaltzen hasi natzaio. Tira, ibilbideaz baino, idazteko moduz aritu gara. Berari ere idaztea gustatzen omen zaio, baina poemak idatzi beharrean, ipuin erotikoak idazten dituela aitortu dit.

Gaueko hamaikak jo dute jada, eta ia ez da jenderik ikusten kaletik, hortaz, nire “lagun” berriak, eztiki, bere tabernan sartzeko gonbita egin dit. Atzoko parranda ahaztuta daukat dagoeneko, eta bizitzan bestelako ziorik egongo ez balitz bezala garagardoak eta zigarretak erretzeari ekin diogu poesiaz eta literaturaz ari garen bitartean. Bost-sei garagardo edan ondoren, leher eginda nago, eta ene gorputzak etxera joateko premia sentitzen du noizbait. Noizbait ere, “ezpain gorrik” nekatu xamar antzematen nau, eta ideia ene burutik ebatsia izan balitz bezala, plastikozko poltsa zuri bat jarri du ene esku artean. Automata bat izango banintz bezala, jokoari hasiera eman diot hauts magikoekin. Gorputz herdoildua martxan jarri dut berriro ere, begi nekatuak eguzki bilakatu dira – hasieran berde kolorekoak, orain ozeanoa bezain urdinak– , eta nekatzen hasita zegoen mihia orain berba jarioan musika instrumentua bihurtu da.

Ene eginbeharrekoak egin ditut, eta orain “ezpain gorriren” txanda da. Bera ere ez da koldartu eta gogotsu ekin dio trikimailuari. Arrunt gustura gaude, eta aspalditik txepelkeriak baino ez ditugu esaten. Gure bizitza elkarri kontatu diogu ere, nolabait, barrena lasaitu nahian, gaueko labirinto poetiko horretan elkarrekin galtzen hasiak ginen eta. Orain bi urte banandu zen mutilarekin, ezkondata ez bazeuden ere, eta gaur egun amamak utzi zion pisu txiki-txiki batean bizi dela aitortu dit. Are gehiago, pisua tabernaren gainean dago. Arte ederrak ikasi zituen orain urte batzuk, baina ideiak ondo antolatuta eduki ezean, puzzleko piezak ahokatzen diren legez, nahiago izan zuen lagun baten tabernan hastea ametsak antolatu arte. Badira hamar urte tabernan hasi zenetik, hasieran bere lagunarekin batera, baina azken 6 urteetan bera bakarrik aritu da lagunarekin izandako haserrealdia baten erruz.

Ez pentsa nik gauza handirik kontatu diodanik. Funtsean, nire bizitza ez baita oso desberdina. Bikotea daukat bai, eta ikasketak ere bai. Baina bai batak zein besteak, orain arte, bizitzan ez didate bestelako “nobedaderik” ekarri. Nolabait aitortu diot “ezpain gorri” ez naizela ase sentitzen, aske sentitzen. Beti betiko zalantzekin nabilela eta ez diedala ene benetako apetei edo gurariei askatasunik eskaintzen, giltzapeturik baitauzkat sarri asko ene egunerokotasunean. Hots, goiz jaiki, etxea batu, bazkaria prestatu, lanera, lanetik etxera, bikotearekin hitz aspertua bota, elkarri galdetu eguna zelan joan den, eta gogoak sobera egonez gero, larrua jo bost bat sei minutuz eta lotara. Hortik datoz seguru asko ene arazoak alkoholarekin eta beste substantzia debekatu batzuekin.

Ordu biak jada. Berbaldiaren lehenbiziko gezaldiari gatz eta piper erantsiz, bion mingainak leunki eta lasaiki berotuz joan dira. Badirudi azken tragoa hartuko dugula, baina halako batean zerbitzariak poema bat irakurtzeko eskatu dit. Ordura arte ez dit horrelakorik eskatu, eta ezustean harrapatu nauenez ene aurpegiak harridura islatu du. Berehala, adeitsu eta leunki, lotsarik edukiz gero, ez irakurtzeko agindu dit; baina behin ene barruko suziria piztuta irakurtzeko behar izanak bultzatu nau, ezezagun baten aurrean ene arimaren sekretuak ahoskatzera. Baten batzuk ditudala esan diot, Xabier Montoiaren liburuan ostendurik, eta gaiari buruz itaundu diot. Irribarretsu amodioari buruzko olerki bat eskatu dit eta nik pozik poemaren letrari heldu diot. Ene ondoan jarri da, eskua hartu dit eta bere belarria ene sorbaldan jarri du astiro-astiro, arnasketa sentitu nahian, lapurtu nahian. Lortu du, edozelan ere, ene lagun berriak. Menderatu nau bere tabako eta arrosa usain garbiak eta zikinak. Bero naiz, nolabait, bero sentitzen dut ene

gorputzeko zirrikitu guztietan, izerditan, eta jarioa geldi ezina da. Mintzo da,  
bada, ene gorputza, ene poema:

*Lehenengo muxu beldurtiaren egunean*

*zeruko izarrak testigu bakarrak dira.*

*Burua eta hankartea borborrean,*

*begiek islatzen, ordea, beldurren desira.*

*Eskuak noraezean asmatu nahian dabilta,*

*kiribil infinitu legez, ehun mila aholkuetan galduta.*

*Mihia aiko-maiko izan ate magikoen giltza.*

*Eta izarrek epaile, epaituko dute*

*behin momentua helduta.*

Egina dago, bada. Arnasa sakon hartu dut, eta albora begiratu dut  
ene entzulearen kritika edo esan beharrekoak entzuteko. Orduan ohartu  
naiz, bere eskumako eskua ene hankartean dago, eztiki ferekatzen izter

tolesturak. Supituan, sekula sentitu ez ditudan soinuak ene barnetik ateratzea lortu du eta, sumendia bainintzan, ene sexuak eztanda egin du. Gozamenera abandonatu naiz. Bere ezkerreko eskua, ordea, lepotik dabil kilimak egiten, geldi ezinik. Paralizaturik nago, zur eta lur, suge gaizto batek pozoia barruraino sartu izan balit bezala. Ez dakit zer egin. Altxatu eta korrikan hasi edo? Zoratuta ere ez. Ez dut ezertaz ezagutzen “ezpain gorri”, baina berdin dit. Berriro ere sumendi hura. Zer da hau. Ene gorputza gozamenaz lehertzeaz dagoela esango nuke. Arnasa hartu dut berriro, poemaren amaieran egin bezala; ariketa hau ere poema bat idaztea edo errezitatzea izango balitz bezala. Baina deskantsurik ez. Berehala hartu nau zerbitzariak bere baitan eta lurrera bota nau trapuzko panpina naizelakoan; erropak azkar kendu dizkit, bortizki, baita alkondara urratu ere. Bere mingaina izan da sentitu dudan lehenengo gauza; hotz, bero, likatsu eta ausart. Ene belarriek bere esanetera dirudite, bat-batean tente jarri dira haien lagun berriak –alegia, mingainak– hitz zikinak goxoekin erkatuz, xuxurlatuz, miazkatzera ekin dionean. Titi buruak sutan dauzkat, baina “ezpain gorri” eskuzabala da, ez baita haiekin ahaztu, ezta izterrekin, besapeekin, zilborrarekin ere. Azkenik ene altxor kuxara jaitzi da, otso gosetua bailitzan, eta ez orrialde hauetan, ezta munduko libururik potoloenean ere jaso daiteke sentitu dudana. Hain izan da orgasmo sakona, zirrara uzkiko barrunbeetaraino ailegatu zaidala, eta ene gorputzeko tolestura guztiak garrasi sakon batean bildu dira extasiari ongi etorria emateko. Besoak

zabaldutugu eta une bat geroago biok elkar besarkatu dugu maitemin garretan, gerora lopor sakon batean murgiltzeko.

Ixiltasuna. Ixiltasuna baino ez da entzuten. Adituz gero, gu bion arnasketa ere entzuten da. Zeozer harraroa barrundatzen diot lekuari; alegia, ez dut orain bost minutuko zoru hotz eta gogorra ene bizkarrean sentitzen. Kontrara, ohe baten gainean nagoela esango nuke, “ezpain gorrik” airean hartu eta leunki etxeko ohean utzi izan banindu bezala. Usain berezia dago logelan, ezaguna egiten zaidan usaina. Ez ditut oraindik begiak zabaldut, gau magikoan jarraitu nahi dut eta. Izan ere, mingaina ezpainetatik pasatu dut –propio– bere aluaren zapora gazia berrezkuratu eta enea egin nahian. Arrunt nekatua nago, baina aldi berean poz-pozik pasadizoagatik. Beste behin errepikatu nahiko nuke. Beharbada, kontaktuan segi dezakegu eta, beharbada, egunen batean seriotu harremana, beharbada...

Halako batean zurrunga deiadar batek osoki esnatu nau. Izututa nago. Alegia, non nago? Berehala ene ondora begiratu dut eta ezaguna egiten zaidan bisaia ikusi dut. Aski ezaguna egiten zaidana. Ene bada...ene senarra. Zurbil nago, beste behin. Zuringorik gabeko gorringoa sentitu naiz. Noizbait, nonbait. Atzoko afera ametsa ote? Ez da posible. Hain zen erreala... jostorratza sartuko nuke ene azalean esna nagoen edo ez frogatzeko. Senarra esnatu da –sumatuko zuen noizbait ene ezinegona– eta bere betiko babo aurpegiarekin ea gosaria prestatu diodan galdetu dit, berak ez baitaki ia-ia lokarriak bere kabuz estutzen.

Bai. Ez dago zalantza izpirik, ene senar baboa da. Ezetz esan diot, ez dudala gosaririk prestatuko. Kalera noala eta bejondeiola igandea esan diot. Amets lizuna izan bada ere, makulua hartu, eta ene ametsa egia bihurtzera abiatu naiz poliki, presarik gabe; apetek ametsen ortzimugan larrua jo dezaketelakoan bainago.